XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2247

62/2012 DEKRETUA, maiatzaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2012 urterako aurrekontuko 9211 programan (Espainiako Sektore Publikoarekiko Finantza Harremanak) diru-sarrerak lortu direla-eta, 7112 (Arrantza) programan 1.853.058,06 euroko kredituak gaitzen dituena.

1.853.058,06 euro ordaintzeko konpromiso irmoa hartu da, Ministroen Kontseiluak 2011ko urriaren 28an hartutako Erabakiari jarraiki. Erabaki horren bidez, 2011ko urriaren 17an egindako Arrantzako Arloko Batzarraren ondoriozko banaketa-irizpideak eta finantza-konpromisoak formalizatu ziren, nazioarteko eta hirugarren herrialdeetako kala zerrendetara batutako arrantza ontziak eraisteko plan nazionala dela-eta.

Horiek horrela, gaitu egingo dira kreditu horiek, 1/2011 Legegintzako Dekretuaren 82. eta 83. artikuluak betez (1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duena).

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko maiatzaren 8an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2012ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
7112	752.00	1.853.058,06

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9211	731.00	1.853.058,06

Nazioarteko eta hirugarren herrialdeetako kala zerrendetara batutako arrantza ontziak eraisteko plan nazionalarekin lotutako jarduerak finantzatzeko erabiliko dira funtsak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko maiatzaren 8an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.